

Mariasun Landa

Elefante txori-bihotza



igelioigela

Elefante txori-bihotza



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2023ko urria

Azalaren eta barruko irudiak:
Iván Landa

Maketazioa:
Erein

© Mariasun Landa

© EREIN. Donostia 2023

ISBN: 978-84-9109-913-0

L.G.: D 949-2023

EREIN Argitaletxea
Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300

e-posta: erein@erein.eus

www.erein.eus



Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45.

20800 Zarautz

T 943 835 008

e-posta: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Mariasun Landa

Elefante txori-bihotza

Ilustratzailea: Iván Landa



igelioigela 44

Kaixo Xabier:


Orain arte oso zaila egin zait zuri gutun bat idaztea.

Hasten nintzen bakoitzean, atea jotzen zuten eta elefante bat agertzen zen.

Zuk badakizu nik animaliei eskola ematen diedala, ezta?

Bada, ez dakit badakizun elefanteei irakastera animatu nintzela nire esperientzia handitu nahi nuelako, baita mundu zabal honetatik bidaiatzeko gogoia nuelako ere.

Elefantenews egunkarian irakurritako iragarkiak niregan pentsatuz idatzia zirudien:



*Interes kulturalak dituen
elefante-talde batek maistra
dinamiko eta abenturazale
baten beharra du.*

*Etxebizitza oihan
afrikar batean.*

Dieta begetarianoa.

Soldata: Ehun tona banana.



Zer ondo!

Poz-pozik onartu nuen lan berria. Oso egokia iruditu zitzaidan niretzat.

Armiarma trakets eta maniatiko batzuei klaseak emateaz kokoteraino nengoen; gainera, eulitan ordaintzen zidaten, eta, egia esanda, hori ez da, ez, egundoko mokadu goxoa.

Izan ere, mundu guztiak esaten zidan elefanteak ikasle fin-finak zirela, oso saiatuak.



$$1+1=2$$

$$2+2=$$

—Armairu baten tamainako oroimena dute. Ez, are handiagoa, mudantza kamioi baten tankerakoa –esan zidan Indiatik etorri berria zen elefante-maisu batek—. Badaude batzuk, ikastekoa gordetzeko hainbeste leku dutenak, non ferryen antza baitute; auto, autobus, museo eta dinosauro diseinatu mordotzat eramatean dituzten horienak.

Egia esan, gehiegizkoa iruditu zitzaidan hura, baina aukera aparta zenez, ez nuen bi aldiz pentsatzeko betarik hartu. Edozer gauza zen hobe armiarma-eskola hartan irakasten jarraitzea baino.

Horrela, bada, Afrikarako hegazkina hartu nuen, umore onez eta ekipaje gutxirekin: Rudyard Kipling-en ipuin-liburu bat, koloretako arkatz-kaxa eta hortzetako eskuila. Ez nuen gehiagorik behar.

Hasieran, elefante-talde haren jakin-minak harritu ninduen gehien. Batzuek jakin nahi zuten zenbat abarka zituen Olentzerok; beste batzuek, ea zenbat dilista sartzen ziren igerileku batean, zenbat kolunpio zeuden Europan...





—Ez litzateke egokiagoa irakurtzen hastea? —proposatu nien nik kezkatuta.

Uf! Hura izan zen haserrealdia! Irakurri! Irakurri!... Haiek ingelesa ikasi nahi zuten, gimnasia aritu, ordenagai-luak astindu edota astronauta izateko prestakuntza-ikastaro bat egin.

Ai ene! Orduantxe hasi zen nire zorritxarra elefante haiekin! Bakoitzak gauza bat nahi zuen, eta denek besteena. Sekulako iskanbila. Saltsa ederrean sartuta nengoela konturatzen hasi nintzen.

Gainera, Xabier, nire ezjakintasuna airtortu behar dizut... Nik uste nuen elefante guztiak berdinak zirela edo oso antzekoak:

«Tamaina handiko ugaztunak, azalzimurrak, tronpa baten itxurako sudur luzea eta bi letagin luze zorrotzak dituztenak...».

Besterik ez. Hori baitzen Unibertsitatean erakutsi zidatena, eta definizio hori oso-oso eskasa da. Inork ez zidan egia jakinarazi, ezta Indian elefanteirakaslea izan zenak ere...



